



## ROKODROMOAREN ARAUDIA

### SARTZEKO MODUA

- Rokodromora sartzeko, aldez aurretik alokairuaren **kuota ordaindu** behar izango da; kuota hori egun, hilabete, hiruhileko edo urtebetekoa izan daiteke, salbu eta eguneroalokatzen bada.
- Erabiltzaileari **txartel bat** emango zaio, eguneko kuoten kasuan izan ezik; txartel horretan ordaindutako epea agertuko da eta erabiltzaileak atezaintzako arduradunari erakutsi behar izango dio, hala eskatuz gero.



### ERABILERA ARAUAK

- Nahitaezkoa da segurtagailu guztietan **mosketoia jartzea**; hori ahalik eta azkarren egingo da.
- Ezin izango da, inola ere, 3 metrotik gorako garaiera gainditu sokarik gabe.
- Jarduna une horretan bertan aurrera eraman nahi duten erabiltzaileak baino ez dira egongo rokodromoan.
- Hormako **elementuak ezin izango dira aldatu** (presen aldaketa, markak). Instalazioko langileari aurkitutako ezohiko egoeren berri eman beharko zaio: presen mugimendua, segurtagailuen haustura, ezohiko portaera eta antzekoak.
- Rokodromoan **gehienez ere 10 erabiltzaile** egon ahalko dira.
- Rokodromoa erabiltzeko **gutxieneko adina 14 urtekoa izango da**; hala ere, adin txikikoak sartu ahal izango dira, betiere helduek lagunduta.
- 16 urtetik beherako guztiek gurasoen edo tutoreen baimena beharko dute, inskripzioa egin ahal izateko.